



INGURUARI SO MIRAR ALREDEDOR

Jose Ibarrola

2022ko ekainaren 24tik irailaren 11ra
Del 24 de junio al 11 de septiembre de 2022



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Kontrakoa pentsa bagenezake ere, inguratzen gaituzten objektuak, gurekin bizi diren horiek, ez dira aldaezinak; oso bestela, aldakorak dira, haiekin ditugun harremanen arabera edo, hobeto esanda, haien eta gure memoriarekin dugun harremanaren arabera. Harreman horien menpe jokatzen dugu beti. Begiratzeko errutinak berak ezustekoak ezkututzen ditu. Eguneroko bizitzako objektuak, erabiliaren erabiliaz beren zereginetik haragoko esangurak oro galdu dutenak, elementu arrotz bihurtzen zaizkigu halako batean, irakurketa berriez beteak. Aterki bat, liburu ahaztu bat, paperezko itsasontzi txiki bat, aspaldiko margolan bat... Objektu horiek guztiek, eta beste askok ere, nortasun berezi batez janzten dira gure memoriaren iragazkitik begiratzeko baditugu, halako moduan non norberaren ondare emozionalean txertatzen baitira. Topiko izaera galtzen dute, eta erreferente pertsonal bihurtzen zaizkigu.

Oso misteriotsua eta ulertezina den zerbait dago objektuak hautemateko gutako bakoitzaren moduan.

Sarritan, irudi jakin batek harrapatu egiten gaitu, armiarma-oihal batek bezala. Gure oroitzapenen labirintoan txertatzen da, oharkabea, sumaezin, haren presentzia. Harik eta egun batean, aurrez abisatu gabe, protagonismoa aldarrikatzen duen arte. Mekanismo bitxia da gero, eta beti harrigarria. Pentsa genezake oroitzapenek mantso-mantso beratu beharra dutela izaera propioa irabazteko. Irudiko luke orduan bakarrik, behar bezain denboraz ondo digeritu otean, bete dezaketela beren funtzio espezifikoa gure memorian.

Eta batzuetan ezinegona pizten digute. Gizakiek eta beren gorabeherak bezala, beren gurari eta ziurgabetasun, adostasun eta desadostasunek bezala. Harritu egiten gaituzte haien emozio geroratuak, elkarri zuzenduriko begiradek eta barne-paisaiek.

Baina gure habitat sentimentala ez da osatzen soilik objektu, oroitzapen eta pertsonak. Historiak ere badu hor lekua, Historiak, zeinaren isuri etengabeak bultzatzen baikaitu, gure erabakietako asko eta asko baldintzatu eta bideratzeraino. Horregatik da garrantzitsu inguruari begiratzea. Non gauden eta nondik gatozen ulertzeko, begirada, kezka eta harreman misteriotsu horiek elkarlotzeko, eta, batez ere, memoria gizabanako gisa eraikitzen eta identifikatzen gaituen elementu aktibo gisa aldarrikatzeko.

Artisten lanaren zati bat beren ingurunea eta ezaugarriak barneratzean datza, behaketa emozionalki interesgarriren bat edo beste transmititzeko. Obra jakin baten aurrean ditugun erreakzio indibidualek harreman bizia pizten dute biziaren eta artearen artean. Horregatik, beraz, margotzen ditut nire ondare sentimentala kontatzen duten irudiak... Ondare sentimentala: oroitzapenak zelatatzen diren norberaren leku berezi hori, ahanzturak inposaturiko abandonutik berreskura ditzagun. Eta, bide batez, zauriak orbaintzeko ere margotzen dut, ahaztu nahi ez ditudan zauriak.

Jose Ibarrola. 2022

Los objetos que nos rodean y con los que convivimos no son inmutables, resulta que varían según nos relacionamos con ellos, o mejor, con la memoria que tenemos de ellos y de nosotros. Actuamos constantemente en función de esas relaciones. Es el encuentro con una sorpresa escondida en la rutina de mirar. Objetos cotidianos que, de tanto ser usados, han perdido cualquier significado más allá de su función de repente se convierten en elementos extraños cargados de nuevas lecturas. Un paraguas, un libro olvidado, un barquito de papel o un antiguo cuadro filtrados por la mirada de nuestra memoria desarrollan una personalidad singular que acabamos incorporando a nuestro patrimonio emocional. Dejan de ser un lugar común para convertirse en un referente personal.

Hay algo profundamente misterioso e incomprensible en la percepción que tenemos de los objetos.

En muchas ocasiones una imagen nos atrapa como una tela de araña. Su presencia nos acompaña imperceptible en el laberinto de nuestros recuerdos. Y un día, sin previo aviso, reclama su protagonismo. Es un curioso mecanismo que siempre sorprende. Parece como si los recuerdos necesitaran de una lenta maceración antes de tener su propia entidad. Solo entonces, digeridos con el suficiente tiempo, pueden ejercer su función específica en nuestra memoria.

Y a veces nos inquietan. Como los humanos y sus entornos, sus anhelos e incertidumbres, sus encuentros y desencuentros. Nos sorprenden sus emociones en diferido, sus miradas cruzadas o sus paisajes interiores.

Pero no son solo los objetos, los recuerdos o las personas quienes construyen nuestro hábitat sentimental. Es también la Historia, cuyo flujo permanente nos empuja, la que orienta muchas de nuestras decisiones. Por eso es importante mirar alrededor. Para comprender dónde estamos y de dónde venimos, para enlazar esas miradas, esas inquietudes, esas misteriosas relaciones y sobre todo para reivindicar la memoria como un elemento activo que nos construye e identifica como individuos.

Parte del trabajo del artista consiste en interiorizar su medio y sus características para transmitir alguna observación emocionalmente interesante. Nuestras reacciones individuales ante una obra generan a su vez una intensa relación entre la vida y el arte. Por eso pinto imágenes que narran mi patrimonio sentimental, ese lugar propio que acecha a los recuerdos para recuperarlos del abandono impuesto por el olvido. Y pinto también, de paso, para cicatrizar las heridas que no quiero olvidar.

Jose Ibarrola. 2022